


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
44n. ZENBAKIA
BAGILLA
— 1981 —**




**URKIOLA:
EUSKADI'KO
ARNAS-LEKUA**

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couñe eu nostror

Zenue nrotea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

IRAKASKINTZA

IKASTURTEA

Bagillean sartu gara. Ille onetan gai asko aztertu bear gendukez, baiña batez be irakaskintza aztertzeke dala sa-soirik egokiena uste dot: orain amaitzen dira ikasturteak ikastoletan, ikastetxeetan eta mailla guztietako ikastegietan.

Arin-ariñeko begirakada bat bota ezkerro, lenengo artuko dogun ikutua ez dogu pozgarria izango: Itxura baten beintzat, gure irakaskintza ez doa ondo.

ARDUREA

Eta ez da ardura-bako gai lez irakaskintza baztertuta ikusten dogulako. Ez orixe. Iñoz baiño ardura geiago artzen dabe, ikasi bear ez dabenak beintzak, gurasoak, agintariak, politikariak, eleizeak eta abar.

Ikasteetxen ekonomi-arazoak arduratzen gaitu eta or diardugu ikastetxe jabedunai zenbat eta zelan ordaindu ez-tabaidatzen eta legetzen.

Ikastetxeen euskaltasunak arduratzen gaitu eta ikastolen lana ta eskoletakoa zelan berezitu ta alkartu asmatu nai genduke.

Gurasoak ikastegietan izan bear dabezan eskubideak eta lanak be kontuan artzen doguz.

Ikastegietako erlejiñoa, burubidea edo idearioa, politikea... eta zer ez? dira artega jarten gaituenak.

* * *

GIROA

Baiña, zori txarrez, ikasleen artean ez dago gogotsu ikasteko girorik: alperkeria, itzitasuna, danari erantzun-bearra, araurik onartu eziña, ardurarik eza, lanañ ondo ta zeatz egiteko gogorik-eza, eta olako gaiso asko aurkitzen doguz ikasleen artean. Iñoz baiño geiago.

Nondik sortu dan giro nastatu ori?

Ez dira ikasleak errudun. Ikasleak kalean artu daben giroa daroe ikastegietara. Demokraziaren atxakiaz, edo zelako aizeak zabaldu doguz gizartean eta «alako aizeak, olako ekaitzak» ekarri dauskuez.

Gazteen eziketarako ikastexea arlo bat baiño ez da eta sendiaren edo giroaren laguntza bear da. Orixe da ez daukaguna eta ori sortzen ez dan artean, irakaskintza geroago ta txarrago joango da. Ez dago beste urtenbiderik, gizartea bideratzea baiño.

* * *

ABEDETU-GABEAK

Gure susmo txar ori ondo oiñarritua ete dan jakiteko Ikastetxe Nagusi bateko Irakasle entzutetsu ta oartu bate-gana jo genduan. Ona emen gure alkar-izketearen muiña:

– Zelan gertatuta datortzuek gaurko ikasleak, batxillerra ta COU amaitu ta arlo orreitan onartuak izan ondoren?

– Batzuk ondo, baiña gitxi. Geienak oso txarto. Baiña itxaropena ba-daukagu. Txarragorik ez da etoriko. Batxiller abedetu-bakora eldu gara eta berago ezin leiteke jausi.

Tamalgarría benetan! Baiña ori esan ebanak ba-ekian zar iñoan.

* * *

AGIRIAK

Gaur egun agiridun gizonak, gazteak batez be, asko dira. Gaur edozien da agiridun, titulodun, baiña agiri oneik balioa galdu dabe, arindu egin dira, «inflaziño» a izan dabe.

Gogoratu dagiguzan eskoletako maisuak: Oraintsu gitxi jakiten eben eta gitxi irabazi, oraintsuago ikasketa sikonagoak eta sendoagoak egiten ebezan eta irabaziak be neurri obeagora jaso ziran, baiña azken-aldietan irabaziak ondo zaindu arren, ez dakit ba zelako jakintza-mailla dauken.

Asko dira gaur erdi-maillako baimendunak, baiña lenagoko agiria eukenen parean, beragoko maillan geratzen dira, gaurkotasuna aundiagoa izan arren.

Beste gauza askoren antzera, gure kultura be larrialdi mingarri baten aurkitzen da eta ez dogu urtenbide itxaropentsurik ikusten. Eta txarrena, euskal-kutsua apur bat sartzeko asmoa dagoanean beerakada negargarri au sortu-bearra izan da.

ONDARROA'N BIZKAIERAZ

Jaunak:

EUSKERAZAINTZA, danok dakizuen lez, Euskeraren Erri Akademia da. Luzaro ibilli gara gure legeztatzearen alde lanean. Azkenean be 1980'ko Gabonilla'ren 10'eko erabagiz, gure Akademi au aintzat artu eta erriaren onerako lez onartua izan da, «de utilidad pública».

Gure jokabidea garbia izango da. Danok gura dogun batasun baten alde jokatu dogu, baiña *erri euskeraren* bidez lan eginda.

* * *

Orretarako erri euskera indartu gura dogu, uste dogulako erri euskeratik etorriko dala gure euskera-
ren iraupen eta bizia. Eta erri euskeraren ezaupide ta erabilteak ekarriko dau batasun jator baten bidea.

Erri euskera indartzeko, bakotxak bere tokian bereari bizitasuna emotea bearrezko da. Zenbat eta bakotxarena geiago indartu, errez eta erosoago egingo dogu, edo joko dogu gura dogun batasunera, eta batasun au atsegin eta gogokoago izango da danon-

tzat, erabilten dogun euskera jator baten bidez lortua izango dalako.

* * *

Orretarako gu gara alegindu bear gareanak bakotxarena indartzen, euskera erabilteko bide ziurra ortik datorrelako.

Pozez ikusi dogu oraintsu Ondarroa'ko ziñegotziak (kontzejalak) egindako eskabidea (E. A. J.'ko ziñegotziak) eta bere ondorena, *Ondarroa'ko Udalak bere goraberatarako bizkaiera erabiltearen alde Jorrailla'ren 2'ko Batzar orokorrean artutako erabagia*.

* * *

Bizkai'ko Udal guztiak bardin egingo ba'lebe, uste dogu euskerak nortasun eta jotartasun betea artuko leukela Bizkaia'n, eta jotortasun ori, Euzkadi osorako maillan zabaldu gura dan benetako euskera batu baten ezaupiderako mesedegarri izango litzakela, *bear dogun batasunik lortuko ba'da, erriaren euskera jotarretik egin bear dalako, eta ez euskeraren oiñarririk ez daukan jokabide batetik*.

IPUIN-SARIKETA

OARRA

EUSKERAZALEAK TALDEA'ren Lan-Etxean ainbat ipuin artu dira sariketarako eta epai-maikoak lanean diardue sariak zein zeñeri emon ebazteko, baiña lan ori esandako epearen barruan ezin amaitu izan dabe.

Illebeten luzatzen dogu ba epaia emoteko epea eta urrengo ZER aldizkarian agertuko da erabagia, eta saria irabazi daben iru ipuiñak be zenbaki orretan agertuko doguz.

EUSKERAZALEAK

Ondarroa'ko ziñagotziak (kontzejalak) egindako eskabidearen ieki (kopia) bat bialtzen dautsuegu, zuentzat egoki eta aintzako izango dalakoan.

Euskera lanetan zeozer gura dozuenean, emen gagoz EUSKERAZAINTZA osotuten dogunak, zueri laguntzeko *erri euskera* bidez.

Agur ta erdi.

* * *

Ondarroa'n Bizkaieraren alde jokatu nai izan dabe.

Ondarroa'ko E. A. J.'ko kontzejalak eskari au egin eben Udaletxean:

«Udaletxean eta Udalean, gure errian, bertako goraberetan, euskera erabiltea nai dogu.

Ba dogu guk, euskeraren barruan, gure jatorrasun bat, gure berbeta berezi bat.

Danok dakigu Euskalerrian, inguru eta errialde andiak, antxiñatatik, gure era bereziak doguzala.

Guk, Ondarroa'n, Txomin Agirre batek edo Mogel batek ain egoki erabili eben euskera erabilten dogu.

Ez goaz batasun baten aurka mailla nausi baten. Euskotarrak gara. Baiña bizkaitarrak be bai. Bizkaitar garealako gara euskotarrak. Bizkaitar nortasunez. Eta nortasun orretako ezaugarri bat, galdu ezin geinken berbeta da.

Gure erriari bere nortasuna zaindu nai dautsagu, eta gure izate eta goraberak gure euskera errez, errikoi eta jatorrean erakusteko premiña dogu.

Origaitik, Ondarroa'ko agerpidetarako, E.A.J.'ko kontzejalak eskatzen dogu, Bizkai'ko euskera jatorra erabilteko Udaletxeko goraberetan eta erri maillan bear diran agerkizan gaziñetan.

Uste dogu batzarrak ondo artuko dabela eskabide au.

Ondarroa'n 1981'ko Epailla'ren 21'an.

* * *

Idazki au Jorrailla'ren 3'an egin zan Udal batzarran irakurri zan.

Egun orretako Batzar agiriak au diño, bere zorzigarren puntuan:

«Ondoren Udal Batzar orokorari agertuten yako premiñazko dala Udaletxean zelako euskera erabili bear dan zeaztutea. Ori dala ta, alkateak, E. A. J.'koen ordezkari lez, agiri bat irakurten dau, Ondarroa'ko Udaletxean erabili bear dan euskera bizkaiera izan bear dala eskatuz.

Bere ondoren Imanol Oruemazaga'k, H. B.'ren eskabidea agertzen dau, aurrez agerbide batzuk egiñaz, esanez Ondarroa'ko Udalak, euskerarako itzultzaille bat aukeratzeko egindako gorabera guztiak, euskara batua oiñarri zala egin zirala, eta era orretan, eritxia eskatu yakoen erakundeak eta agertu ziran mutillak egin zituen azterketak Batuan oiñarritu zirala. Ondoren, Euskal Jaurilaritzak be euskera ofizial lez euskara batua erabilten dabela esaten dau. Azkenean bere eskaria era onetan zeaztuten dau: ofizial agerbidean euskara batua erabilteko eta Udalaren ingurutik urtengo ez daben agerbidean, ondarrutar euskera.

* * *

Ondoren Jon Arrizabalaga'k, L. K. I.'ren izenez, Udaletxeko euskera ofizial lez batua erabilteko eskatzen dau. E. A. J.'ren jokabidea salatzen dau, esanez bizkaiera sartu nai dabela Udaletxetan, geroago Euskal Jaurilaritzak be erabili dagian, nai ta gaur ofizial lez batua erabiltera beartuta egon Jaurilaritza au.»

Eskabidea auzitara atara ondoren era onetan agertu ziran botoak: alde (E. A. J.) eta 5 aurka (3 H. B. eta 2 L. K. I.).

Ori ikusita Udal Batzar Orokorak 9 boto alde eta 5 aurkaz, Ondarroa'ko Udaletxeko euskera ofiziala *bizkaitar euskera* edo *Bizkaiera* izatea erabagiten dau.»

* * *

Eta ez ori bakarrik.

Egun orretan, amargarren puntu lez, Berriatua'ko Batzorde Eragillearen goraberak onartu bear ziran. Eta erabagi orreik irakurri ta baieztu ondoren, H. B.'ko ordezkariak esan eban: «Aukera au artzen dabela, Berriatua'ko Batzorde Eragilleari zorionak emoteko euren agiriak euskara batuan idatzi ditulako».

Nik, bizkaitar lez, lenengoz erakutsi eusten izkuntza lez bizkaiera erabiltera beartuta nagoan lez, nire buruari itanduten dautsat:

Ze pekatu egin dogu bizkaitarrok gure jaiotzatik artu eta erabili dogun bizkaiera erabilteagaz?

* * *

Zeiñen aurka egin dogu pekatu ori?

Gure izkuntza au emon euskun Jainkoaren aurka?

Sorlekua emon euskun Bizkai erriaren aurka?

Edo ta ez ete dogu guk *bizkaitarrok gure nortasunez euskaldun izateko eskubiderik?*

A. ZUBIKARAI

GAZTETXOEN

OLERKI

SARIKETA

Aurtengo olerki sariketa au apirillaren 26'an ospatu zan aundiki-ro. Beste zazpi urteetan lez amar urtetik amabost urterarteko neska-mutikoentzat izan zala, ez daukagu zetan esanik. Zornotza'ko Erti-Kultur Alkarteak merezi ditu gure txalorik beroenak jai au ondo ospatzeko orrenbeste alegintzen dalako; baita Bizkai Aurrezki Kutxak be urtero emon oi dauan laguntasunaren alde.

Lendanetik iragarrita egoan egitaruak iñoanez, oiñarri onein barruen osotuko zan sariketa. «Konkursu onetan —iñoan— parte artu leikee 10 urtetik 15 urte bitarteko neska-mutillak, Euskalerrian jaiok naiz gaur bertan bizi diranak. Norberak aukeratua izango da idazlanaren gaia, euskeraz eta oraindik argitaratu bakoa. Batzaldi ontan parte artuko dabena lenengo euren olerki-lana otsegin bearko dabe epailleen mai aurrean, lenengo txandan, eta gero, beste bat irakurri, bakotxak naiena

dauana, OLERTI 1980 liburutik aukeratura».

* * *

SARIAK

Bizkai Aurrezki Kutxak konkurtsuan esku artzen dauan bakotxari emongo dautsa, kanpokoa ba'da, 500 pezeta, eta errikoa ba'da, 300 pezeta. Orrez gaiñera, lenengo geratzen diran bostak, bakotxari dagokion garai-ikurra ta liburu-pillo eder bat artuko dabez. Orrelaxe egin zan.

Arantza Basagoiti Azpitarte geratu jakun txapeldun. 13 urtekoa eta Lauro ikastolakoa, «Ea ez zitzaion berdin» asten dan bost estrofazko olerkiaz; Araiz Zalduegi bigarren, 12 urtekoa ta Lauro'koa au be, bere «Aitona zaharra»-az; Jon Igor Urresti Osa irugarren, 12 urtekoa ta Lauro ikastolakoa, bere «A zer nolako politik ziren» olerkiaz; Luis Mari Zelaieta Gerediaga laugarren, Zornotza'ko

Karmel ikastolakoa, bere «Aberri Eguna» lanaz, eta A. Azpitarte bostgarren, Zornotza'ko «Andra Mari» ikastetxekoa. Aipamenak be izan ziran: Xabier Erreterria, Gerediaga, Kristina, Atutxa ta abar.

* * *

ARANTZA BASAGOITI

Eta zuk esango dozu: Zelako maillakoak ete dira gaztetxuok aurkeztu dabezan lanak? Aurreko urtekoai ezer kendu bage, aurtengoak eder ugariagoak dirala nik uste. Bai pentsamentuz eta bai sentipenez beterik dagoz. Eta gaztetxoan artean be, esan daikegu, ba-dala arnasa poesi-arazoan; au barriz pozkariozko gauzea jaku, olerkia da-ta erria biztu ta bertzen dauana.

Ona adibide batzuk. Arantza Basagoiti'k autu edo alkar-izketa zolia sortzen dau aitaren eta karrera ikasten dauan semearen ar-

tean. Mediku izateko diñotso aitak, baiña semeak, Picasso'ren antzera, margolari izan nai; medikuak, alan be, beti euki dau bere gaixoakin sabela beterik eta margolariak utsik. Ona semearen erantzuna:

«Utzi, aita, billatzen nere margoetan nortasuna; utzi, aita, billatzen nere pertsonaren askatasuna utzi, aita, billatzen nere erriaren edertasuna; utzi, aita, billatzen mundu ontan laguntasuna».

Eta aitak, amor-emonik, erantzuten dautsa zentzun aundiz:

«Utziko diat, seme, ik nai duana egiten; saiatuko naiz beti pertsonen naia egiten».

* * *

ARAIZ ZALDUEGI

Bardintsu Araiz Zalduegi'k be, oso ederki landu dau bere olerkia. Begiratzeko diñotso aitonari illargia:

«Begira, aitona, illargia; ikus, begira illargia; zuria, horia, batzuetan gorria. Begira, aitona, begira gauez uretan illargia. —Noren illargia da? —Gurea ote da?».

Baietz diño aitona zarrak, Euskalerrriaren illargia dala: zuria, oria, batzuetan gorria. Urteak igarota be, illargia an egoan; baiña aitona zarrak ez dau ikusten, ezta errekararen otsa entzun be. Nundik dabil illargia? Izpi batek argitzen dau gabaz aitona zarraren illobia;

aitonaren baserria, eta zugatza, izpi batek argitzen ditu.

* * *

JON IGOR URRESTI

Jon Igor Urresti'k bardin polito abesten dau; bere sukaldea itxi bearrean aurkitzen da baserritarra, lenago diru-arrobi ta poz-sorburu zan baserria itxi ta kalera jo bear izan dualako, ez dau gaur zorionik. Leen bai, oster! Lau aldiz errepikatzen dau olerkari txikiak gure mendi, zelai ba baserrien edertasuna.

«A zer nolako politikak ziran lehengo mendi zelaiak!... Aingeruak bezala hegaz Goi-urdiñeaz odeiak; pailasoak bezala saltoka azeri ta basurdeak, kristalezko mendi ibaitxora edatera abereak; abereen atzetik dabilta txio-txioka txoriak».

Gizonak, baiña, dirua bear bizitzeko, ta baserrian dirurik ez. Eta urira doa baserritarra, sendiari pena aundia emonaz. Baserrian aizea garbi osasuntsu; urian industria ta kutsadura ugari.

* * *

LUIS MARI ZELAIETA

Zelaieta zornotzarrak gizonki abesten dau euskaldunon zoritxarra; leen aske giñanok, gaur iñoren mende gagoz zerbait lortu nairik. Aberri lez, zer gara? Olerkariak onela:

«Zer gara, ba, euskaldunak? Laburpenez, aberri bat atzo giñan euskaldunak; gaur kanpoko aberri bat».

Zergaitik ori? Gauzarik asko galdu doguzalako. Euzkadi aberri bat da, baiña aberri bat osotzen daben zer asko galdu ditugu: lege, oitura, izkuntza, pentsakera...

* * *

KRISTI G. INTXAUSTI

Erri-zale, errimin agertzen jakuz umeak; darabilgun auziak arduratzen ditu, antza danez. Kristi G. Intxausti'k «Zu ta ni» deritxon lan ariña eskintzen dausku. Ni motela naz, baiña zu bikaiña; ni txikiña, baiña zu ederra.

«Ni beti burrukan, baiña zeu baketan. Nire elburu aundi zure ugaritasuna; nire gogo bizia zure askatasuna».

* * *

XABIER RENTERIA

Xabier Renteria'k be, naiz-ta bertso txuritan, «Euskal galera» deritxona oso ederto tajutu dausku. Lurra, euskal lurra, sastarraz betea ikusten dau, airea autsez kutsutua, ormak pintadaz... Eta erloju zarrak eriotzaren tik-takeak abesten ditu. Gu ez arduratzen, guk ez daukagu orregaitik miñik, gure oiturak galduak dira; gure azken-illunabarra or dogu, amaiera datorkigu... Eta erloju zarrak eriotzaren tiktakekak abesten.

Labur: lanez ta jentez jai ederra Zornotza'n apirillaren 26'an egiña An aurkeztu ziran lanetatik zati bat aurtengo OLERTI-II'an agertuko ditut, an esku artu eben neska-mutikoen pozgarri ta guzion atsegingarri.

AITA ONAINDIA

CUBA

BARRUTIK

(VI)

EMA-GALDUKERIA

Kubatarrentzat ez dago emagaldukeriarik, baiña bakoitzak nai dauana egiteko eskubidea bai. Beraz, orain arte be esan dogunez, maitasun-arloan askatasun zabala dabe: ezkontzatik kanporako umeak ugari dira, ezkontzabanakuntza eta aurgaltzea onartuta dagoz.

EZKONTZA-BANAKUNTZA

Cuba'ko gizarte barruan oneik sarritan gertatzen dira. Iru eta lau bidar banandutako pertsonak ezagutu neuazan. Jakiña, banatzea diru bat kostatzen zan, baiña ez zan guztiz garesti be: 90 peso izan ezkeru, banakuntza lortuta egoan.

Arlo oneri emoten eutsoen garrantzi urria ikusi eragiteko, adibide kaxkar bat jarriko dot: ezkontza-banakuntza lortzea elektrodomestiku bat lortzea baiña askoz errezagoa zan; lortzeko 90 peso ordaintzea naiko zan, eta ez egoan, bestalde, «domeka gorrietan» edo beste lan mota berezi

batzutan merituak lortzeko lanik egin bearrik.

AUR-GALTZEA

Au be eguneroko ogia dogu Cuba'n, aurdun geratu eta leenengo bi illabeteetan beintzat. Baiña lau, bost eta sei illabetegaz egin euen emakumeak be ezagutu neuazan. Emakume bat ginekologo baten-gana joatean, onek egiten dautsozan itaun arrunt batzuk oneik dira: ume barri bat zaintzeko dirurik dauan, aurdunaldia etentzea nai dauan, edo, dirurik izan ezik, sortubarria jaiotzean «aberriaren seme» izateko itziko ete leuken, eta abar, eta abar... «Aberriaren seme» izatea Estaduaren eskuetan iztea da eta onela amak ez dau zertan bere semeaz arduraturik: Estaduari eskeintzen dautso-nez, Estaduak dau beragazko ardua osoa.

EZIKETA

«Eziketa» itza «irakaskintza» itzaz trukatuko ba'gendu, oso

urria dala esan bearra dot. Emendik joandako Zamora'tar batzuk esaten eustenez, Cuba'tarrok gure semeengandik urte biko atzerakuntza daue: bost urteko euren seme batek zazpi urteko kubatarrak baiño geiago ekian, eta, beraz, eskolara joan gura ezean ibiltzen jaken.

Eziketa aldetik begiratu ezkeru, Estaduaren alde jokatzeko gertatua dala esan bearra dot. Beste aldi batzutan emendik ezagututako oitura bardintsuak ezagutu neuazan andik be: eskolara sartzen bandera agurtu eta euren ereserkia abestu bearra eta abar...

Baiña gauza onak be ba-ditu: irakurtzen eta idazten ez dakien oso gitxi dago. Eta au Cuba'ko Iraultza osteko lana dala esan bearra dot. Orain, kultura mailla aztertzeru jo ezkeru, ezkorrago agertuko nintzake: naiz eta idazten eta irakurtzen jakin, euren kultura mailla naikoxarra da.

(jarraitzeko)

PIRU LEGARRETA

ITZIAR'TAR JOANES

IDAZKARIAK

Auxe diñosku Garibai'tar Itebek, bere kondaira luzean: Euskaldunak oso itsaslari on, errementari treba ta idazkari bikaiñak dira.

Idazkari bikaiñak berekin dau ixil, zintzo, luma ederdun ta kontugille errime izan bearra. Ixil eta zintzo izatea etxetik ekarri eikezan euskaldunak; nundik ekarri baiña luma ederdun eta patxarazko kontugille izateko beste doaiok?

Berarizko maixu onak izan dauz euskaldunak arlo onetan: Itziar, Madariaga, Iturzaeta, Irigoien eta abar. Eta Itzia'tar Joanes lenengo ta onena.

LUMA EDERDUN

Durango'n jaio zan Itziar, 1522 urtean. Etxe oneko seme, Italia'n ibilli zan bere gaztezaroon. An ezagutu ebazan Ludovico de Henricis, Tagliente ta Palatino jaunak, lumagaietan maisu andi ziranak.

Eta eurenak ikasi ta bereak asmatuz, mundu guztiko maisurik andiena biurto zan.

Idazkera bi ziran ezagunak orduan: «procesal» eta «cancilleresco» deituak ziranak. Lenengoa, kirrimarrazko izki zantarrekoa; ta kakodun izki motzekoa, bigarrena.

Beste idazkera barri bat asmau eban Itziar'tar Joanes'ek; eta «letra imperial» deitu eutsoen gure gizonaren idazkera ederrari. Laster zabaldu zan idazkera barria mundu guztiaren zear; eta berau erabillia izan da, oraintsu arte.

«EL ARTE DE ESCRIBIR»

Ez zan gizon makala! 25 urtetan idatzi eban bere liburu au; eta ez edozelan idatzi be! Bertan dakaz Ebertar, Gerkar ta Arabiar abakak be, izki borobil eta ederrez egindakoak.

95 zurezko orritan ziriztatu edo kopostatu bear izan ebazan, orretarako. Lan luze ta gatxa!: izkiak ankaz-gora margoztu, lenengoz; eta aizto musturraz ziriztatu, urrengoz.

Oso arrera ona izan eban liburuak. Bein da barriro argitaratua izan zan; eta orduko ikastetxe geiengtan onartua.

Idazkariak kontugille bizkorra bear daula izan, eta laster atara eban orretarako beste liburu egokia: «Aritmetica práctica» eritxona.

MAIXUA

Laster egin zan izen andiko geure Itziar; eta Españaiko errege, Felipe II'ak beregan artu eban, bere seme Karlos'en irakasletzat. Ez ori bakarrik; Escorial konbentu andiko liburu eder ta apaiñak idatzierazo eutsozan.

Zaragoza'ra etorri zan andik laster, ta eskola andi bat eratu eban berton. Bere ikasle izan ziran gizaldi artako idazkeririk onenak. Eta Peru Madariaga arratiarra, danetan onena. Gai oneri buruzko beste eskola bat eraikiko eban onek Valencia'ko urian; eta an, aren antzeko beste liburu bat atara.

Maisu ta irakasle eredu izan zan Itziar. Gauza ederra dala oroimena-esaten-eban-; ez dala baiña ikaslea buruz ikastera beartu bear. Maitez artu bear dauala maisuak bere ikaslea, ta ikasterako berorazo ta azkortu.

JAKINTSUA

Beste liburu bat argitaratu eban ikasleen eziketari buruz. Gai asko erabilten dauz berton; eta filosofi ta teologi gaiak, besteak beste.

Oso interesgarriak dira bizi-erio ta gogo-soiñari buruz diñoskuzan gauzak. Eta ez dira bertan-bera itxitzekoak Kristoren Nekaldiari buruz azaltzen dauskuzan buruera, oldozkari ta usteak.

Izkuntzalari, ertilari, ezilari, irakasle, jakintsu ta jainkozale..., abade egin zan, azkenik 51 urtekoa zala. Ez daukagu, baiña, bere abadetza ta bizitzako azken urteen iñungo barririk.

URKIOLA'k

ADITZARI GAGOKIOZALA

ADITZARI GAGOKIOZALA

Aditzari gagokiozala, zein berba egikeran zein idazkeran, oraintsurarte entzun ez diran esakun edo adizkera batzuk entzuten eta irakurten doguz gure egunotan.

Adibidez:

- Ezin naz gaur Guernika'ra joan.
- Ezin zan orduan iñor ekarri.
- Ezin da olakorik egin.
- Au egia danik ezin dozu esan.
- Eta abar.

Onelango esakuntzat edo adizkerak, nik dakidala beiñik-bein, ez dot uste gure egunotararte iñoiz erabilli izan diranik. Ez bizkaieraz, eta ez gipuzkoeraz. Ez erriberbetan, ez izkribuetan.

Euskera umetan ikasi eben geienen «belarrietan»-min egiten dabe orrexegaitik.

Era orretako adizkiak euskaldun barri diranak batez be erabilten dabez.

«Batez be» diñot, eta ona zegaitik.

Gaur-egun txikitatik euskaldun izan diranai be entzuten dautseguz orrelango esakunak. Idazle onak diralarik, euskaraz idatzi ta idatzi egiten daben batzuek be, badarabillez noiz orrelango adizkerak. Areago, barriz, idazle on ez diranak eta euskera menderatzen ez dabenak.

Azken urteotan gatx au geitu egin jakula esango neuke, eta geroago ta andiagotuz doakigula.

Eta aditzari dagokion garrantzizko puntu bat illunzen, naasten eta galtzen daukagu orrexegaitik.

Neurririk artu ez badagigu, beraz, eta al bait lasterren artu be, oraiñarte erabilli izan diran adizkera jatorjatorrak galdutzat-edo emon geinkez, bai bizkaieraz eta bai gipuzkoeraz.

Leenago be gai ontaz idatzi izan dot. Barriro egitea ondo datorkigula nik uste. Berandutxo ete dalakoa daukat, eta orregaitik alperrik izango dala, bearbada.

BITARIKO ADIZKERAK

Euskeraz bitariko adizkerak daukaguzana, gauza jakiña da.

Ikusi:

- Ibilli aal naz — ibilli naiteke = *Puedo andar.*
- Erroan aal dot — eroan daiket = *Lo puedo llevar.*
- Ezin ibilli naz — ezin ibilli naiteke = *No puedo andar.*
- Ezin ekarri dot — ezin ekarri daiket = *No lo puedo traer*

Ezin dot lorik egin — ezin daiket
(neinke) lorik egin = *No puedo dormir.*

Adizkerok esangura bera ta adiera bera dabela dirudi. Gaztelaniaz itzulpen bat dauke. Euskeraz, baiña, ez da bardin. Bakotxak bere esangura berezia dauko. Ezin, beraz, zein bata zein bestea norbearen naierara erabilli. Aditzera zer emon nai dan eta orduantze baino.

ALTUBE'TAR SEBER JAKINTSUAK IRAKATSIA

Altube'tar Seber jakintsuak zeatz-meatz irakatsi eban zein dan adizkera batzuan eta bestetzuon esangurea eta noiz bata eta noiz bestea erabilli daiteken.

Aonelan diño berak:

«La frase española «no puedo venir» puede traducirse por las dos euskéricas *Ezin etorri naz y Ezin etorri naiteke*, según sea el matriz de significación temporal que se quiere imprimir a la frase.

Algunos escritores (y con ellos un euskerólogo eminente, según lo manifiesta en un tratado publicado recientemente) no distinguen la diferencia semántica que presentan las dos locuciones expuestas, así como todas aquellas que pueden ser agrupadas en euskera bajo denominaciones de Potencial Presente (Etorri al naiz, ezin etorri naiz) y Potencial Futuro Presente (Etorri naiteke, ezin etorri naiteke)» (Erderismos, 248 orr.).

«El pueblo no contaminado del habla cervantina nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones», diñosku berak beste liburu baten.

LEENENGO SAILLEKO ADIZKERAK

Altube maisuak irakatsi ebanez, *ibilli aal naz, ezin ibilli naz, ezin dot egin* eta onelango adizkerak ORAIÑALDIKOAK dira, eta aala edo aal izana eta eziña edo ezin izana *ikusita gero* erabilten dira. Ikusi barik edo ikusi baiño leen, ez. Aala edo eziña ikusi (probau) izana garrantzizko araua da adizkerok zuzen erabilteko, edo «cuando la potencialidad está puesta a prueba», Altube'k esango leukenez.

Adibidez:

- Ibilten asi banaz eta ozta-ozta izan arren be, nabillela ikus badagit, orduantxe esan neinke: **IBILLI AAL NAZ**, ibilli aal nazala orduantxe nauk ikusi dot-eta. Ezin ibilli nazala ikus badagit,

ostera, EZIN IBILLI NAZ esango dot, eta ederto esanda, ezin ibilli nazala neuk orduantxe ikusi dot-eta.

- Altube'k berak dakarren argibidea aitatur, lo egiteko ogeratu eta agiñetako miña daukazulako-edo, lorik ezin eginda bazagoz, orduantxe esan zeinke: EZIN DOT LORIK EGIN, ezin egin dozula zeuk orduantxe ikusten dozu-ta.
- Bizkarrean eun killoko lepokadea artu eta badoa-la ikus dagianak, EROAN AAL DOT esango dau, eroan aal dauala berak orduantxe ikusten dau-ta. Bizkarrean artu eta beretxat astunegia dalako, lurrera jausi badakio, barriz, EZIN DOT EROAN esango dau, eta ederto esanda, ezin eroan dau ala berak orduantxe ikusi dau-ta.

BIGARREN SAILLEKO ADIZKERAK

Bigarren sailleko adizkerak, ostera, au da, *ibilli naiteke, ezin ibilli naiteke, egin daiket (neinke), ezin eroan daiket (neinke)* eta abar GEROALDIARI dagokioz. Bestelako esangurea dabe orrexegaitik.

Argibidez:

- Lana daukazulako-edo, zuretzat eziña da gaur Gernika'ra joatea, EZIN NAITEKE GERNIKA'RA JOAN esan bear dozu euskeraz ondo berba egiteko, eta ez: EZIN NAZ GAUR GERNIKA'RA JOAN, gure egunotan gazteari batez be entzuten jakenez.
- Nonora joan bear dozulako-edo, gaur gabaz zure etxean lo egitea eziña badozu, EZIN DAIKET (NEINKE) GAUR GABAZ ETXEAN LORIK EGIN esan bear dozu, eta ez: EZIN DOT GAUR GABAZ ETXEAN LORIK EGIN.

TXARTO

«Zortzi egunetan ezin da miraririk egin» (KAR-MEL; 1980-3,67 orr.)

«Ur aundiek ezingo dute itzali maitasuna, ezta ibaiek ito ere» (orduan Liturgi, 922 orr.)

«Ezin zerate izan Jainkoaren eta diruaren morroi» (Orduen Litur., 763 orr.)

«Ezin dogu esan gizaldiak zearreko»... (DEIA, 19-4-81).

Ezin naz gaur Gernika'ra joan.

Ezin zan orduan iñor ekarri.

Ezin da olakorik esan.

Au egia danik ezin dozu esan.

BESTE IKUSPUNTU BATETIK BEGIRATU EZKERO

Jakingai oni beste ikuspuntu batetik begira bagakioz, zerau esan geinke: *Ezin etorri naz esatea ezin etorri naiteke esatea baiño geiago dala, leenengo esakunak aalmenik eza edo «impossibilitas physica» dalakoa agertzen dau-ta, eta bigarrenak ez. Era berean, au ezin dot egin esan ezkerro, aalmenik eza agertzen da. Au ezin daiket (neinket) egin esan ezkerro, ostera, ez.*

Oiñik edo ankarik ez daukana *ezin da ibilli*, gura izan arren be, ibilteko bear-bearrezko diranaz falta jakoz-eta. Eta ibilli ezin bada, *ezin daiteke (leiteke, lei) ibilli*, jakina. Au, baiña, ondorio bat da.

Itsu batek be *ezin dau ikusi*, eta ezin dauala ikusi esan bear da, *ezin daike ikusi esatea baiño askoz geiago da-ta*, ikusmenik eza agertzen dauan ezkerro.

Ori dala-ta, *pelikula au ezin dogu ikusi*, esate baterako, edo *umeak ezin dabe pelikula ori ikusi, emen ezin dogu barbarik egin* eta onelango esakuntzak ez dagoz ondo eta euskaldun-euskaldun diranen «belarrietan» min egiten dabe.

Pelikula ori ezin daikegu (geinke) ikusi edo *umeak pelikula ori ezin daikee (leikee, leie) ikusi, emen ezin daikegu (geinke) barbarik egin* esan bear genduke «belarrian» min egin barik berba egiteko.

Ikusmena badogu, izan, edo berba egiteko aalmena badogu, izan, eta beste zerbaitegaitik da ezin ikuste ori edo berba ezin egite ori, konbeni ez dalako-edo...

ESALDI OKERRAK ETA ZUZENAK

Altube maisuaren irakatsien arabera oker dagozan esaldiak sail baten eta zuzen dagozanak beste baten ipiñiko doguz, irakurleen jakingarri. Esaldi batzuk liburu eta aldizkarietatik artuta dagoz. Askoz geiago bildu daitezke, baiña, nai izan ezkerro.

ONDO

«Zortzi egunetan ezin daiteke (leiteke) mirarik egin».

«Ur aundiek ezin desakete itzali maitasuna, ezta ibaiek ito ere».

«Ezin zaitezketete izan Jainkoaren eta diruaren morroi».

«Ezin daikegu (geinke) esan...»

Ezin naiteke gaur Gernika'ra joan.

Ezin eitekean orduan iñor ekarri.

Ezin daiteke (leiteke, lei) olakorik esan.

Au egia danik ezin daikezu (zeinke) esan.

PUXANA

LAKUNTZA'KO MANDAZAINA

Bein batean, Lakuntzar bat joian Iruñara, arraiñaz beteriko zazpi mandokin.

Iru estudiante be ba-joiazan bide beretik. Eta mandazaiña ikusi ebenean, deabrukeri bat otu jaken gazte biurriai. Alango bi bide ondoko sasi artean gorde ziran; eta mandazaiñakin berbetan asi zan irugarrena:

—Diru asko egiten dau gaur, Iruñan, arraiñak. Ez zaree txarto bizi mandazaiñok, arranotan!: ...gura aiña irabazi..., jateko iñok baiño arrain ohea..., edateko ardaurik onena...

—Bai...!; eta estudianteak..., sasirik-sari...; asko jan eta gitxi ikasi!

—Ori..., ori! Gitxi ikasi, eta ezin, ezin ezer aurreratu! Zeuk, barriz, gero ta artu-emon andiangoak!

—Artu-emon andiangoak..., eta lan astunagoak!

—Bai...! Eta bruxapeko katana-rrua lodiago...!

MANDOKERIA

Orrela joian estudiante malmutzta mandazaiñaren belarriak gozaten. Bitartean, burutu euren lana aren lagun biak: ...sasi artetik urten, eta mando lerroan jarritik, mando bat ostu egin eban

batak; bigarrenak, barriz, ostutako mandoaren kaprestu ta lepokoak soiñean jantzi, ta mando sailari lotu zan berau.

PEKATU BALTZA

Alango batean, mandazaiñak burua atzera biurtu, ta gizon bat mando antzera loturik ikusi ebanean, beragana joan zan, guztiz arriturik: eta olan esan eutson itzotelka:

—Seme, zer egin dok neure mandoagaz...? Nora eroan dok?

—Neu nozu zeure mando a...?

—Eneee! Eu...?

—Orain lau urtez, pekatu baltzandi bat egin neban bai, eta abadeak mando biurtzea emon eustan, penitentziz. Oraintxe berton bete dodaz lau urteok, ta ona ni gizon biurturik, barriro.

—Arrane, arranea...! Bost aldiz emon duat sorta larregi, ta zaldale exkax. Guztien barkamena eskatzen duat. Barkatzen daustak...?

—Bai, jauna, bai! Guztia barkatuta dago!

MANDO POLITA

Bere basta ta kabuak itzita, joan zan estudiante ori. Eta mandazaiña etxerakoan, mando bat gitxiagoz biurtu zanean, esan eutson bera emazteak:

—Ene bada ta ni...! Zer...! Joakoan edo galdu al dozu alango mando eder a...?

—Itxoin, itxoin, apur baten... Gauza arrigarri bat gertatu jat.

—Zer, ba...?

—Iruñan'ko seme gazte galant bat mandoturik ibilli da neurekin lau urte onein buruan.

—Zer diñozu, gizona! Eta ez deutsozu barkaziñorik eskatu?

—Bai...! Baita berak gogo onez emon be!

—Bai..., amaika bidar esan dautsuk nik, mandotako politegia zala a...

TAFALLA'KO AZOKAN

Andik labur, Tafalla'ko azokara joan zan geure Lakuntza'ko mandazaiña. Eta an batetik bestera ebillela, or ikusten dau, estudiante malmutzak ostutako mando polita. Beragana urreratu, ba; ta aren balarri andietan ezpaiñak ipiñi, ta esan eutson ixil-mixilka:

—Zer..., beste pekatu baltzen bat egin al dok orain be...?

—Erosi nai al dozu...? Salgai dago —esan eutson saltzailleak.

—Ez, ez...! Gorde zeuretzat, gura ba'dozu.... Ni ondo eskarmentuta nago...!

ESTONBA'tar Manuel

IZKUNTZA

«Izkuntza, etniaren (erriaren) zatirik ederrena eta go-ragarriena da. Gizarteko artu-emonetarako bakarrik baltz, bere egiazko balioa moztuta legoke.

Baiña izkuntza kultura baten burdia da, gogo baten izpillua, erri baten balioaren eleiza nagusia bezela».

Guy Heraud'ek.

«L'Europe des ethnies» liburuan.

Liburu eder orretan idazle jakintsu onek izkuntzari buruz beste gauza eder eta andi asko esaten ditu.

* * *

IZKUNTZA ERRI BATEN OIÑARRI

«Izkuntza erriaren arima da, eta bere gorde-leku eta babes».

«Izkuntza bat galtzeak, kultura baten galtzea dakar, izkuntza dalako erriaren kulturaren agerpena eta mamia».

«Erri bakoetak bere izkuntza berezia dauka, eta kultura bakoetak bere izkuntza». *Guy Heraud.*

«Erri andi eta indartsu batek, beste erri txiki bat galtzea nai dauenean, leenen-leenengo alegin guztiak egiten ditu, erri txiki orren izkuntza iltzeko». *Guy Heraud.*

* * *

EUSKERA GURE IZKUNTZA

1925'garren urtean leiaketa (konkurso) bat egin zan euskaldunen artean nor «slogan» politagoak asmatu euskeraren alde, eta esaldi oneik irabazi ebezan gorengo mailakoak, oneixek dira:

«Jaungoikoak txori-enda bakoxtari bere abestia emon deutso, lora bakoxtari bere usain-gozoa, eta aberri bakoxtari bere izkuntza».

«Euskaldunai, euskeraz». «Euskera barik, ez da Euzkadirik».

«Euskaldun: euskera baiño izkuntza aragoak ba dira, zureagorik ez».

«Izkuntza bakoxta gogoaren odola da. Izkuntza aldatzea gogo aldatzea da».

«Nai dituzun izkuntza guztiak buruan artu egizuz, baiña biotzean beti Euskera».

«Euskera maite dogu, zarra dalako, ederra dalako, gure mendierako lora usaintsua dalako, baiña batez bere GURE-GUREA dalako». *Karmelo Etxegarai.*

GOIKOETXEA'tar Iñaki

UMEKERIAK

EUN PEZETAKO TXARTEL BATEN GORA-BERAK

Kaixol, eun pesetako txartel arrunta bat naz, nire azalean Manuel Fallaren irudia dago eta orain nire kondairatxo esango dautzuet.

España'ko banketxetik egun baten urten nintzan, gizon zar baten esku barruan gordeta, arineketa gizon zarraren etxera joateko.

Gizon zar ta zeken onen etxean ille batzutan egon nintzan baiña egun eder baten gizon zar ta zekenak lepoko berogarri bat erosi bear eban eta denda aretan itzi ninduan.

Denda aretan ondo egon nintzan, kutxa barruan beste txartel batzukaz

batera, ta bero bero egon nintzan ta bereala beste txartelen lagun egin.

Egun batzuk igaro ziran ta egun baten dendako serbitzari batek artu ninduan eta barrero kalean aurkitzen naz.

Ondoren neskazar bategaz egon nintzan. Bera, neskazarra bere lagun bategaz etxe-oin zaar baten bizi zan.

Neskazar au beti arineketa ibiltzen zan eta orregaitik egun baten autobusera igotean kalera jausi nintzan, esku-zorroitik urten nebanean bustirik, gizon zarpil, memelo batek artu ninduan.

Bera oso pozik egoan eta baita ni ere.

Berak jarleku baten eguzkitan ipiñi ninduan legortzeko ta orduan taberna baten niri eskerrak, egun aretan baskaldu eban.

Gerotxoago tabernako ugazabaren diru poltsan gelditu nintzan.

Illeko lenengo egunean serbitzariarengana joan nintzan ta, zer jazo zan?

Serbitzari onek nigaz bere lenengo alogera artu eban ta orregaitik margo baten ipiñi ninduan ta emen nago Kamareroaren gelako orman, eta emen bizi naz ta pozik atan be.

OLEAGA'tar Karmele

GURE ERRIKO ITXAS-ARRAINTZALIEK

Aldi luzean idaz-langille bidean geldi egon ondoren, zerbaitzuk esatera nartortzue irakulioi gure erriko arraintzaliak.

Eurok bai ari dira beti jo ta je itxaso gainean.

Epaillean bertan juen dira gure erriko kaiatik portutik, Kanarias'ko uretara, itxasoetara. Bertara eldu eta bat-batean asi ziran arraintza onak egiten.

Baiña euren pozak zoritzarrez arin amaitu yakez, araiña gitxitxu urrituaz eta au gertatu yakeelako batzuk, Jorraillen eta amabosterako, etorri dira Kanarias'tik, gure erriko kaiara.

Beste batzuk geratu dira bertan Kanarias'ko itxasoetan itxaropentsu geroago arrintzo onak barriro egitekotan.

Orrelaxe geratu diran danak egin dagiela.

Kanarias'tik etor diranak, emengo itxasoetan asi dira bokart-arraintzan. Emengo itxasoeten bokart-arraintzan jokatzeko Kanarias'era juen barik geratu dira 19 itxas-ontzi bokart-zale eta eurok, Jorrail onen lenengo egunetatik asi dira, arraintza guztiz onak egiten eta salneurri egokietan saltzen.

Onelaxe irau dagiela guztiak bokart-sasoia amaitxu arteraiño. Poztuko nintzake.

Besu-lebatz itxas-ontzietako arraintzaliak be, pozik dabilte eurek dauken irebaziagaz.

Epaillean asi dira edo asi ziran beseu ta berdelak, ederto arrapatzen eta salneurritz ederto saltzen.

Lebatza gitxiago arrapatu dabe Jorrail onen amaika garren egunerartien. Onegaz be, irebazten dabe zeozer.

ARRASTERUEN JOKAERA'GAIK

Juandako Otsaillean entzun neban gure Bermio errian ain zuzen lebatz-beseu zale arraintzaliei, arrasteruek zati-tu eutsoezela, Bermio aurreko, lebatz-beseu arrain kalak (tokiak), au dala-ta eta irebazi barik txarto aurkitzen dirala-ta, Epaillean egin dabe gure erriko arraintzaliak, arrasteruen jokaeraren aurkako, IBILALDIA (manifestazioa), oker ez banago, ondo egin dabe IBILALDIA, nik uste.

Esan dodan ezker «ondo egin dabe», esan dot, onexegaitik: Arrasteue sortu aurretik, gure aurreko notin-arraintzalie, billatu dabez Euzkal-Erri'ko, itxas-basterretako lebatz-beseu arrain-kalak (arrain-tokiak). Nik entzun nebanetatik, gure gurasoak eta gure gurasoen aurreko gurasoak ibiltan ziran itxas-ontzi txikietan eta oneik ibiltan ziran arraunaren indarrez (erramuaren indarrez), Euzkal-Erriko lebatz-beseu arrain-kala toki guztietara.

Au onela izanik, nire ustez, oker ez banago arrasteruek ez dauke kalte eginik autarkirik «deretxorik» arrain-kala orreitan jokatzu ibilteko.

Arrasteruek beti izan dira eta izanen, lebatz-beseu zalien aurkako eta kalteko itxas-ontziak.

Zer esanak eta kalteak amaitzeko, ez dagiela arrasteruzian arrasteruok lanik egin euren tokiak ez diran arrain leku edo tokietan.

GURE ERRIKO ELIZAK

Gure errian Bermio'n zortzi eliza daukaguz. Zortziretatik, iru dira «Parrokiak». Iru Parrokietako apaizak, ospatzen dabez zortzi elizetan guztiz pozgarri ta ederto, MEZA SANTUAK Jaungoikuari eskerrak.

Baiña Eupeme Deunaren elizan, apaiz gitxiagi daudela nik uste. Juan dan urteko (1980) Irailla'tik onuntz, nik ez dodaz ikusten apaiz bi baiño. Noiz arte?

Norbaitek esan leike: zure ardura alda?

Nire ardura ez da, baiña kristauon eta katolikuon guztion ardura da, Jaungoikuari eskariak eta otoitzak ugari egitea apaizak ugaritzeko nire ustez.

Aipatutako elizan, lau apaiz egoten ziran. Lau orreitatik, bat, «JUBILLATU» da.

Illen aldeko elizkizunak daudenien, beste «parrokieta-ko» apaizakaz ornidutzen da, illen aldeko elizkizuna.

Ornidutzea ez dago tzarto, baiña obeto egongo litzake, erriak bear daben apaizak PARROKI bakoitzean eukitea nik uste, oker ez banago.

AZPEITIA'tar Gotzon'ek

PEDRO PUJANA'RI

Gure Pedro, ai ene gure Don Pedro! Nire Artia maitea osagille Baltzaren atzaparretatik askatu eta euskal aizeetarantz eroan gaitun apaiz abertzale kristiñau zintzo ori!

Langille ixil baiña iñoiz lanean aspertu gabekoa, bere siñismen osoaren barruan kementsu, langilleen langillea.

Bere betula baltz aundien azpian, gizon zuri garbi bat agertzen jaku, baten batentzat sasi-arteko gizona bere itxura dala-ta, niretzat «illunpeko gizona», bere izateagaitik: idazle sakon, gizon jakitun eta abade erriko.

* * *

LANAK

«Euskal Aditza Bizkaieraz», «Oletako Aditza» gure aditz pare bakoaren oiñarri, zeatz eta meatz aztertuak izan dira Pujana'ren bitartez gure Euskalerraren euskalduntze beartasuna era batez betetzeko.

Gure Foruak, geure lege-zarrak, naiz eta euskaldunak izan, erderaz idatzita dagoz; baiña ona emen erriaren langilea, ona emen Pujana euskeratzailea, iñork egin gura izan ez dauana, beronek egin dau, eta ixilean.

Makiñatxu idazle ezagun, akademiko, filologo, batuko, karteletako gi-

zon, euskaltzaindiko... ditugu, baiña iñork ere ez ditu nai lan astun aspergarri orreik. Pujana'k ixilik, erriagaitik botatzen deutsoen guztiari eusiten deutso.

* * *

IXILLEAN

Eta ordua da gure Pedro, illunpeko gizon» au nor eta zer dan nonok esan dagian.

Naiz eta beronek gura ez, ala ere esan egin bear jako erriari nor bizi dan erriagaitik eta nor erriagandik.

Gizon batzuk dagoz euren izena leku guztietan agertzea nai dabenak, beste batzuk aundikeririk nai ez dabenak eta ixilean satorrek bezela azpitik lan eta lan egiten dabenak.

Mundua orrela da: batzurentzat aundikeria eta gozotasuna, eta beste batzurentzat lanaren garratzasuna.

Eta azkenean, zein da onen saria? «Onaren paga, ate ostean palua».

* * *

ZOR AUNDIA

Urteak joan, urteak etorri or gure Pedro bere gelatxoan jo ta ke lanean, beti lanean ta beti ixilean.

Idazlari, abade eta euskaldun gizon zabal eta errikoia, beti erriaren zai eta geure euskera maitearen gudari, oba balitz gidari.

Pedro Pujana'ri, eta beralako beste askori nire agurra eta eroimena, Euskalerrri osoak zor aundi bat daualako gizon oneikaz.

Sasoia eldu da, eta sagar ustelak baztertu egin bear ditugu beste sagar guztiak ez daitezcan usteldu.

Goratu egin bear ditugu, goratuak izan bear diralako euren lan zoragarriak merezi dabelako.

Alde batetik idazle bezela eta beste batetik gizon bezela euren lana, lan goragarri eguneroko ori ain beargarri eta atsegingarri ori bearrezko dogu eta konturaturik eskerrak emon bear deutseguz «illunpeko gizon» onei.

* * *

ESKERRAK

Oletako baserri zar kuttun areatik Loiolara abiatu ziñan ene lagun maitea, apaiz izateko, ta geroztik erritik erri zabiltz zeure kristiñautasuna eta gizontasuna, zeure euskaltasuna munduari zabaltzen, lan astun ori betetzen eta kurutzea lepoan arturik gu guztionen biotza zaintzen.

Benetan ere, eskerrak emon bear deusudaz danoren izenean eta bein batez bene-benetan gure oroimenaren esaldia zabaldu:

«Illunpetako gizon! Gogoan zaitugu, ez zaitugu iñoiz aztuko».

MUNIATEGI-tar Asier

BEREZIA

Neuretzat, geure izkuntza-euzkera ur bizia daritson iturri.

Belutxu da, baiñan dot: 1981-ga-diko BEREZIA artun dot: 1981-garreneko epaillaren ogeitamargarrenean.

Mezaliburu apaiña.

Orain arte, bakarrik iaupa egin bear nebanean, Donosti'ko MEZA SANTUA deritzan idaztitxo erabilten nik, eta irakurgaietan idazteuna.

Emendik aurrera bestelako laguntza ederra izango dot. Eta astiro IDAZTEUNeko itzulpenak zelan egin dabezan ikusten asi naz.

Matai Deunarenetik auxe Urtarri-llaren emeretzigarren egunean:

«Etorriko bait-da Gizonaren Semea Aitaren aintzatan» (Mt. 16,27).

Zatitxu ori bera Olariaga'k onela damosku:

«Laister bai dator Gizasemea bere Aitaren Aintzan».

Ikus Olabide'rena:

«Gizasemea bere Aitaren aintzaz etorriko da».

Kerexeta'rena onela dogu:

«Gizasemea bere Aitaren aintzaz inguratuta etorriko da».

Mezaliburuko «Gizonaren Semea» askoz egokiago dagola iruditzen yat.

* * *

Eta beste au: «...sabelean sortu baño lenago aingeruak esan zuen izen bera» (Luk 2,21). Mezaliburuan 45 orrian.

Olariaga'k: «...sebelean sortu baino lehen aingeruak eman zionez».

Olabide'k: «...erne baño len aingeruak ekarritako IESU izena ezarri zion».

Kerexeta'k: «...sabelean sortu izan baño leen aingeruak esandako izena».

* * *

Lazar zuloan sartuz gerokoan aren arreba Marta txito iztun eta arek IESU'ri iardetsi:

«Jauna, Zu emen gertatu baziñan...» (Ion 11,32 eta Mezaliburuan 176-garren orrialdean).

Olariaga'k: «Jauna, emen izan baziñan...».

Olabide'k: «Yauna, emen izan baziña...».

Kerexeta'k: «Jauna, emen egon izan bazintzaz».

Gizpuzkeraz, beintzat, GERTATU egoki-egoki dagola ez dot ukatuko.

* * *

'Oartxu auk ez luzatzeko, oindiño beste au:

«Iritsi da, Gizonaren Semea goretsia izateko garaia» (Ion 12,23) Meza-liburuan 118-garren orrialdean.

Olaroaga'k: «Eldu da gizasemea goretsia izateko garaia».

Olabide'k: «Gizasemea goretsia izan dedin garaya eldu da».

Kerexeta'k: «Eldu da gizasema goratua izateko ordua».

Beste erderatuko itzulpenetan Semea izki aundiz emoten dauskue.

Garbiago izan daiten euskeraz itz bi orreik batzea ez neuke esango ain egoki dogunik. Gizasemea eta Gizalaba be euskeraz ba-doguz. Itz biak «Gizonaren Semea» batu barik, idazteuneko asmoetan zuzenago sartzen gareala uste dot.

* * *

Biblia osoko landa-zelaiak txito zabal doguz, eta bein iakintsu andienak alegin zintzoz egindako itzulpenak geroagokook ikuitzea ez dogu arrokeritzat emon bear.

Bestalde, geron izkuntza erro-errotik ikasi izan dogunik ez iat iduritzen, eta euskerak beti emonogo dausku arritzekorik zerbait.

Elkarri amor-emonez asko aurreratuko dogu. Ez, beintzat, anaiak esan dauskunik bat-batean zapuztu.

ETXEBERRIA'tar P.s.j.



Irudi au, apain-apain argitaratua, Jaon'en zabaldu da. Barri ona zabaltzeko bide bat da ori be.

URKIOLA

Ba-datorkuz, urtero lez, udako santuak eta euren omenez egiten diran jaiak. Orrein artean, ospetsuenetarikoa, Andoni deunaren jaiak, batez be Urkiola-ganean.

Andoni zarrak lenago, eta gazteak geroago, mendi eder orren gañean ipiñi dabe euskaldunentzat atsedean eta otoitz-toki ederra.

Aldi baten Urkiola-zaletasuna erdi galduta egon zan, baiña aspaldion an dagozan abadeak lan eder eta egokia egiten dabe eta Bizkaia barriro Urkiola'ra begira jarri da.

An aurkitzen doguz bakea ta fedea, an atsedena ta otoitza, an izadia ta Jainkoa, an Barri Onarren deia ta mixiño-bizitasuna.

Baina zenbatek Urkiola'ra joan eta lainoa, euria edo otza eurkitu doguzan, iñoz edurra be bai. Eta ez egoan nora sarturik, non beroa sorturik, gitxi batzui maitasunez eskintzen jaken etxea ta suetea izan ezik.

Ori be kontuan artu dabe serbitzaille areek eta aterpe zabal eder bat gertatu dabe.

Izaten dira egun batzuk an igaroteko ara joan nai daben taldeak be, eta orreintzat ostatua egin dabe.

Urkiola'ra joan bear dogu ba, izadiaren bidez Jainkoagana urreratu nai dogunok. Jentetza aundiak maite doguzala? Andoni deunaren jaietan. Barkatadea ta isiltasuna maite doguzala? Astegun buru-zurietan. Eta beti izango doguz laguntzaille ta adiskide Urkiola'koak.

Ona emen San Antongo abadearen bertso errikoiak, Urkiola goratzeko egokiak:

URKIOLAN AMESLARI

*Iraillen arratsalde
argi euskisutan
aurki naz Kalbario
deritxon tokian.*

*Alde guztiak argi
egun bero ortan
nai ta nai ez be pozik
egon bear bertan*

*Oinpean bedar bigun
loreak usaintsu
mosu orkatillean
au da ba gozatzu.*

*Isil dira txoriak
igaro da aro
kokotxen billa dabiz
bai arin aguro.*

*Begira menditara
Suiza dirudi
Ailluitz zorrotz zuria
dago argi argi.*

*Eskubaraitz zabala
Mugarra okerra
Unzillaitz luze aundi
Durango aldera.*

*Gurutz gañean daula
or dago Sabigain
Anboto, errege lez,
dagola danen gaiñ.*

*Bere magal eguzkik
arrasti onetan*

*bizi-bizi jotan dau
ipiñirik sutan.*

*Bera iruditzen jat
zuri epel goxo
arriren bitza dala
lur goriz itxaso.*

*Urkiola mendia
bedar ta landaraz
or emen laño moltzok
zuriak ederraz.*

*Ez dira laño moltzok
bai ardi zuriak
entzuten ni arretaz
euren arran otsak.*

*Urrunen Oiz mendi
Gorbea gorano
be aldean Mañari
eta Abadiaño.*

*Or dituk nire ondón
pagadi mardulak
aritz tantaiak lerdén,
zurizka urkiak.*

*Danen erdi erdian
Santutegi bikain
ango eliz gizonak
barriztua orain.*

*Orreik gizon santuok
antxe dabe kemen*


*Santu Antonio'en
eleiz au edertzen.*

*Santutegi ortatik
Bizkaia guztira
bai ta euskal errira
grazik eltzen dira.*

*Ba-dira ortik zear
gure izadian
leku bikain zoriak
eder begietan.*

*Urkiola-inguru
bai dala benetan
eurotan ederren bat
guztien artean.*

GALLATEGI'k



ASTIRO

Yorre'n jaio nintzan
 Ubetxa'ko errota'n
 Milla bederatzireun
 Garren urtiatan.
 Bertan ikasi neban
 Euskeraz berbetan
 Ama kututxu aren
 Biotz ezlitsutan.

Irrintzi bat entzunda
 Aramotz gainean

Bertatik erantzun dausat
 Tximist baten antzian.

Baita ibiltzen giñan,
 Gaztetan olgetan,
 Arrapotxe-ganeko
 Bolatoki aretan.
 Gure gazte-denporan
 Ez egoan oingorik.
 Orduan ez zan izaten
 «Sala de Fiesta»'rik.

Irrintzi bat...

Guretzat ez egoan sala
 Ederragorik,
 Sesteruen salea lako
 Sala ederrik.
 Petrak panderoa jota
 Guk bai dantza ederrik,
 Petran panderoakin
 Etzan baltzeorik.

Irrintzi bat entzunda...

Aita Domingo ta ama
 Josepa errota.
 Senar-emazte oneik
 Onrauak aparta
 Etxe txikerra baiña
 Lau mutil garrasta
 Errotako urunek
 Inderra galanta.

Irrintzi bat...

Txomin, Joseba ta Julen
 Neu laugarrena ta
 Bi illak ta beste biak
 Gagoz bananduta.
 Julen'ek iges eustan
 Napar-aldera-ta
 Ni emen gelditu nintzan
 Patxik atiak itxita.


Irrintzu bat...

Oraindiño ba-ditudaz
 Errian lagunak
 Batzuk bizirik eta
 Illak dira bestiak
 Oraindiño ikusiko gara
 Donokian guztiok.
 Gudariak giñan
 ala abestuko dogu.

Irrintzi bat entzunda...

LONTZI'K

13.^a




Gofi

EZKER-ESKUIRA: 1. Muela de Juicio. Homenaje. Protección.—2. A ti, a usted.—3. Ala. Imperfecto. Cerveza.—4. Sya. Sí.—5. Acto de dormir. Que habla un lenguaje extraño al país. Seríamos.—6. Voy.—7. Delegación. Permiso.—8. Quejido.—9. Jamón.—10. Triple. Vado.—11. Boca. Guardián. Rectamente.—12. Cariñoso. Usted, vos.—13. Simpatía, agradabilidad.—14. (el) Telescopio.—15. Comenzar. Usted. Finalizar.—16. Desgranándose. Televisión.—17. Persona de ojos entornados. Tú. Noche.—18. (el) Andar. Usted. Pues.—19. Familiarmente, tuteo. Despedazado.—20. Sufijo que indica privación. (la) Luz. Lo tiene.—21. Amanecer, crepúsculo. Sufijo. Cuatro.—22. Poder. Objeto baladí.—23. Certificación. Trigo. Tiroteo.—24. Predominio. En parte alguna.—25. Ama. Librero.

GOITIK BERA: 1. Hacer lo posible. A ver si. Acuartelar.—2. Alambre.—3. Nombrar. Cuatrocientos. Terraplén.—5. Repollo. (el) Obispo. Tú.—6. Nosotros. Hermano respecto a una mujer. Sí.—7. Matadero. Compañero. Perdido.—8. Yo. Mechón.—9. A ver si. Nevada.—10. Papilla. Arido, marchito.—11. Estrecho. Palidez. Superficie del agua.—12. De risa. Varón, macho.—13. ¿Dónde? Operación quirúrgica. Teléfono.—14. Facultad. Arbusto. Matar.—15. Dicen que. Próximo.—16. Salutación. Hidroplano. Yo.—17. Anónimo.—18. Sea lo que fuera. Ejemplo.—19. Arañar. Semejante, parecido.—20. Sufijo, con, por, de.—21. Triunfador. Temblar.—22. Ave.—23. Seco. Pie. Ensalzamiento.—24. Bajo, suelo.—25. Cualquiera. Guerrero.

Gurutz-izki au, Sabin'dar idazkeran dago í, 7 ta abar.

12.^a ERANTZUNA



Gofi

EUSKERAZALEAK

Il onetan ikasturtea amaitzen dogu eta oporraldia daukagu gure Euskera-ikaskintzan be. Eta oporraldia bear-bearrekoa dogu gaur bizi dogun giro onetan.

* * *

Ba-dira orregaitiño, oporraldian be euskereari ekin gura dautsoenak eta egia esan onei be errazoia emon bear jake.

Izkuntza ikasteko gauza bi bear dira: Arauak eta gramatika apur bat, au batez be beste izkuntza bateko gramatika ikasi dabenak edo biotzez baiño buruz geiago jokatzen dabenak.

* * *

Eta bigarren gauzea, berba egin.

Egin dagigun uger egiteko arau guztiak ondo ikasten dozuala, baiña uretara ez zarala iñoz be sartzen. Ez dozu uger ikasiko.

Gramatika asko ta luzeak jakin arren, berba egiteari ekin eta ekin egiten ez ba'dautsozu, ez dozu berbetan ikasiko.

* * *

Gauzak oker esango dozuz. Barre be egingo dautzue. Baiña zu ez lotsatu. Zure aurpegia gorrituten ba'da be, zu aurrera. Egin berba eta orrelantxe ikasiko dozu utsik egin barik berba egiten.

Umeak ibiltzen ikasi gura dauanean, jaustek izaten ditu. Eta kontua artu bear da miñik egin ez dagian. Baiña, jausi ez daiten, ibilli barik ba'dago ez dau sekula ikasiko ibiltzen.

* * *

Eta berbeteari ekiteko udea da sasoi egolia.

Al ba'dozu joan baserri batera eta an egin lan eta berba, dana euskaraz. Askok aurretatuko zara.

Eta baserria ez ba'da, euskaldun talde bategaz non edo an.

Baiña berba egin.

* * *

Geiago oraindiño. Izkuntza norberaren buruko oiturak egiten dabe eta oiturak sortzeko burua oitu bear da. Orretako, bakarrik zagozenetan be alegindu zure pentsaketak euskaraz izan daitezkan. Or uts batzuk egin arren, ez dautzu iñok barrerik egingo.

A! Eta euskeraz pentsatzen dauana, orixe da euskalduna. Gizonak pentsamentua egiten dau baiña bestera be bai, pentsamentuak gizona egiten dau. Euskal izakerea, euskal pentsakeratik dator.

GAMIZ'ek

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko gorabarak, jazokizunak, barregaiak...

VZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia